

Auzoko ez-solidario eta soportaezin bihurtzeko hainbat aholku

- Txakurra baldin baduzu, eduki ezazu balkoian beti, ordutan eta ordutan zaunka eta zaunka, etengabe. Auzokoak horretarako daude: zure txakurra soportatzeko.
- Mutil-neska gaztea bazara, aukera ezazu zure herriko etxarte isil, baketsu eta erdi-ekutu bat, eta goizeko 10etatik goizaldeko 2ak arte bertan igaro itzazu zure bizitzako urterik onenak, eskolako porrota zer den mundu guztiari jakinarazten: egun osoan ohiuka, mozkortzen, hormak zikintzen, zaborra nonahi barreiatzen, goiz jaiki behar dutenei loa galarazten, familia askoren bakea hondatzen, eta oro har, ume txikiei erakusten zer den ganorarik gabeko gazte bat izatea.
- Motorra baduzu, ken edo truka ezazu isilgailua (lasai, inork ez dizu isunik jarriko eta).
- Neguan, gauez, kotxea bustitzea-edo nahi ez baduzu, aparka ezazu arkupeko espaloian (beti dago baten bat). Eta zu lasai, e?, hori ere doanik aterako zaizu-eta. A, eta ez kezkatu espaloiko baldosoak pitzatzen badira edo koipez kaka eginda gelditzen badira, ziurraski inork ez baitizu konturik eskatuko.
- Etxeko telebista eta musika-aparatuak piztean, jar ezazu bolumena ahalik eta altuenik. Horrela, mundu guztiak jakingo du zeinen gustu ona daukazu. Kontuz, gero: aurikularrak ez erabili inoiz, gorra geratzeko arriskua dago eta (batzuk elektrokutatu ere egin omen dira).
- Ez birziklatu ezer (handi-mandiek bete dezatela Kiotoko ituna).
- Autoak espalaira ez igotzeko jarritako barrak bota itzazu (erakutsi oinezkoiei haien lekua zein den).

Aholku hauek eta beste antzeko batzuk betez gero, “Izorratu auzokoa” lehiaketa irabazteko aukera ezin handiagoak izango dituzu. Hona saria: bidaia-txartel bat (joanekoa bakarrik) Katmandu bisitatzera joateko. Anima zaitez!

*Gizakia ez dator tximinoarengandik
Tximinoa da gizakiarengandik datorrena*